| | | |
|--|--|---|
| <p>10.2006 [51] oldartu i+G hiruhilabetekaria</p> | <p>Oldartu. GAIKER- IK4-ko kanpo boletina Oldartu hiru hilabeteko argitaratzen da.</p> <p>Koordinazioa Komertzial eta Marketing Saila</p> <p>Laguntzaileak Maidor Arieta-araunabeña, Ainhoa Bilbao, Libe de las Fuentes, Oscar Salas, María José Suárez eta GAIKER- IK4 enpresako Garapen Iraunkorreko Jarraibideen Ezarkuntzarako Kontseilua.</p> <p>Diseinua nemonica</p> <p>Fotomekanika + Inprimaketa Estudios Durero</p> | <p> GAIKER ik4 research alliance</p> <p>Komertzial eta Marketing Saila Parke Tecnologikoa 202 Eraikina 48170 Zamudio - Bizkaia - Spain Tel. 34 94 600 23 23 Fax. 34 94 600 23 24 www.gaiker.es mark@gaiker.es</p> <p></p> |
|--|--|---|



GAIKER-IK4 enpresarekin lankidetzan, Euskadiko injinerutza-enpresa honek sistema berritzaileak ikertzen ditu, etxeko isurketen saneamendurako fidagarriak diren sistemak, irisgarritasun zaileko lekuetan dauden eta biztanle kopuru urria duten ezarkuntzetarako.

Sitecma enpresak hondakin uren ataztegien diseinua eta eraikuntza ikertzen du

SITECMA, S.L. (Industria eta Ingurumen Zerbitzuak) enpresaburu talde batek sortu zuen 1995ean, ingurumena errespetatzen duten industria tekniken eta ohituren ezarkuntza sustatzeko. Loiu (Bizkaia) dagoen injinerutza-enpresa horren jarduera, horrenbestez, uren tratamenduko eta teknologia nahiz ingurumen aholkularitzako industria-sektoreetan garatu da.

Bere azken Plan Estrategikoan (2005-2009), negozioa hedatzeko bideen barruan, enpresa horren lehentasuna ingurumenari loturiko produktu berrien garapena izan zen. Arlo horretan, 2005ean, SITECMAk GAIKER-IK4 enpresarekiko lankidetzaproiektu bat hasi zuen, hondakin uren araztegi trinkoak eta modularrak diseinatzeko.

Horrela, proiektu horrek, hiru urteko iraupenaren ostean, sistema berritzaileak garatu nahi ditu (modularrak edo trinkoak), etxeko isurketen saneamendurako fidagarriak diren sistemak, irisgarritasun zaileko lekuetan dauden eta biztanle kopuru urria duten ezarkuntzetarako.

Merkatu jasotzaileak

Garatu nahi den produktua bi merkatu nagusira bideratzen da:

- Garatzeko bidean dauden herriak, horietan finantza-baliabide urri baitago azpiegiturak isolaturiko biztanleria ezarkuntzetara hedatzeko; era berean, hondamen naturalen edo antropogenetikoaren (adibidez, gerrak) eraginezko larrialdi egoerak dituzten herriak,



Hondakin-urak araztea, iraunkortasunaren giltzarrietako bat

horien eraginez lehen urbanizaturik zeuden zonak halako batean saneamendu barik gelditzen baitira.

- Tratamendu deszentralizatua isolaturiko edo mugaturiko eremuetan (urbanizazioak, hotelak, etab.).

Oraingoz, oraingo aukera teknologiko guztiak eta ekipamendu-hornitzaileak ebaluatu ondoren, produktutzat aztertzeke hiru teknologia egoki identifikatu dira, bete beharreko beharrianak aintzat hartuta (kostu baxua eta garapen erraza, garapen bidean dauden herrietarako, edo arazketa errendimendu handiagoa eta teknologia sofistikatukoak,

urbanizaturiko zonetarako).

Gaur egun, teknologia identifikatu ondoren, planta estandarrak diseinatzen eta ebaluatzen ari dira, horien bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa ebaluatzeko; gainera, euren arazketa-eraginkortasuna proba errealekin egiaztatzen nahi da.

Bestalde, SITECMA eta GAIKER-IK4 enpresak lankidetzan ari dira era askotako industria-efluenteen tratamendurako aukeren ebaluazioan; horretarako, injinerutzako ezagupen teknikoak partekatzen dituzte, euren bezeroen beharriari erantzun egokia emateko.



"Berrikuntza enpresa guztietan eta gizarte-inguruan errealitate bihurtu behar dugu"

Datorren urtarrilean bi urte beteko dira Ana Agirre bizkaitarra Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren sailburu izendatu zutenetik. Zuzenbidean lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean Eusko Jaurlaritzarekin, euskal exekutiboarekin duen harremana orain dela hogeita bost urte bere lanbide-karreraren hasieran bilatu behar dugu.

1999. urtean, Ana Agirre orain zuzentzen duen Sailaren sailburuorde izendatu zuten, jarduera hau burutzen zuen aldi berean, Naturcorp Multiservicios enpresaren lehendakariordea izan zen, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) Zuzendaritza Batzordean parte hartu zuen eta baita Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan (SPRI) eta Bilboko Portuko Agintaritzan ere.

| 04 |

Zure ustez, nahikoa da Administrazioak I+G deritzon egindako inbertsioa? Eta enpresek egindakoa?

Inondik inora ere ez. Ez bata eta ez bestea; izan ere, onenetatik urrun ez ezik, geure errenta eta produktibitatea duten ekonomietatik ere urrun gaude. Euren hazkundea derrigortzeko moduko erritmoa ikusi behar da, Europar Batasunarekiko konbergentzia lortzeko. Gure iritzian, 2010erako baliozko konbergentzia arau bat, izan ere, esfortzua BPG izenduna baino hiru aldiz handiagoa izatea da. Politika



Ana Agirre, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua

Ana Agirre,

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua

publikoek erreferentzia horixe izan behar dute, eta ezin dut ezkutatu helburu oso zaila dela administrazioarentzat, eta gainera, sektore pribatuan lortzea ere zail-zaila da. Erronka itzela da, baina saiatu egin behar dugu.

Zer eginkizun dauka politika fiskalak berrikuntza-politikan?

Garrantzitsua izan daiteke, baina oraingo ez da aprobeixatu horren ahalmen osoa, batez ere ETE berritzailetan eta sorberrietan. Eredua ikuskatu eta funtsezko gai bat azpimarratu behar da: zerga-administrazioarekiko tramiteei segurtasuna eta bizkortasuna ematen duen I+G proiektuen kalifikazioa. Gure kasuan, geure ustez Berrikuntza Agentzia berriak funtsezko eginkizuna izan dezake horretan.

Zer balorazio egiten duzu Euskadiko Zentro Teknologikoei eta horiek Euskadiko industriaren berrikuntzan nahiz lehiakortasunean egindako ekarpenari buruz?

Zentro Teknologikoak, lehen bezala orain ere, Euskadiko berrikuntza-sistemaren funtsezko elementuak dira. Horien hazkundera eta garapena faktore bereizgarria izan da geure sisteman, eta gainera, ekarpen itzela egin du enpresen lehiakortasunera; izan ere, euren ezaugarri teknologikoen benetako kostu hondoratuak dira eta abantaila lehiakor oso handia ematen diote eurak erabiltzen dakien enpresari. Hala eta guztiz ere, nire ustez, arrakastatsua izan diren arren, beste erakunde batzuetan gertatzen den bezala, gaur egun bultzada berria behar dute, eta horretan, ez da eskaintza bera nabarmendu behar, eskariaren

beharrizanez lotura handiagoa baizik. Emaitzetara bideraturiko berrikuntza sustatu nahi dugu, hau da, merkatura bideratutakoa, eta horretarako, ahalik eta ondoen arakatu behar ditu eskaintza teknologikoaren ezkutuko gaitasunak, enpresen bidez produktuak garatzeko.

Zentro Teknologikoen hazkundera eta garapena faktore bereizgarria izan da geure sisteman, eta gainera, ekarpen itzela egin du enpresen lehiakortasunera.

Geurea baino produktibitate eta berrikuntza erregistro hobeak dituzten Europako eskualdeetara (berrogeita hamarretik gora) begiratzen hasi beharko dugu.

Zure iritziz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua zarenetik, zein da berrikuntzaren arloko lorpen nagusia?

Lorpenak une zehatz jakinean jartzen dira agerian, baina epe ertaineko eta luzeko politiken ondoriozkoak izaten dira. Oraintsuko lorpen bereziren bat aipatu behar izanez gero, Biobask estrategiaren finkapena eta bioteknologia sektorearen garapena aipatuko nituzke, baita Lankidetzako Ikerketa Zentroen aldeko apustua ere, garapen bideko sektoreak sortzeko nodotzat.

Eta Lehiakortasun Planean agertzen den 2015eko Euskadi lortzeko erronka nagusia?

“Pertsonen bidez lehiatzen den produktibitate handiko herria” izateko, ezagupenaren ekonomia oso berritzailea eduki behar da. Lehen ere esan dut zerbait geure esfortzu mailari buruz, eta emaitzak eta, orokorrean, berrikuntzaren adierazle sintetiko bat aintzat hartuta, ikusten da oraindik ere bide luzea dugula egiteko: berrikuntza garatu behar dugu enpresa guztietan eta gizarte inguruan, isolamenduko testuinguru batean berrikuntza ezinezkoa baita. Erronka horren lorpena agerian gelditzeko, Planean esfortzuaren inguruko eta berrikuntzaren Europako adierazle sintetikoaren inguruko konbergentzia finkatu da helburutzat.

Zer balorazio egiten duzu Estatuko gainerako erkidegoekiko orain dugun posizioari buruz? Eta Europarekiko posizioari buruz?

Estatu mailan talde nagusian gaude, Nafarroarekin eta Madrilekin batera. Hala eta guztiz ere, benetan baliozkoak diren konparazioak Europari buruzkoak dira, eta beraz, hortxe dago esfortzuaren eta berrikuntzaren inguruko konbergentzia lortzeko helburua. Are gehiago, nire ustez, ez da zentzuzkoa Europako estatuetera mugatzea, eta geurea baino produktibitate eta berrikuntza erregistro hobeak dituzten Europako eskualdeetara (berrogeita hamarretik gora) begiratzen hasi beharko dugu, alde batetik, konparazio errealistagoa edukitzeko, eta bestetik, geure berrikuntza-sistema hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen elementuak aurkitzeko.



Proiektuaren helburua laborategi birtuala ezartzea da, elikagaien kalitatea eta segurtasuna kontrolatzeko estrategia komunak garatzeko, produkzio-kate osoan

Elikadura-segurtasuneko Nazioarteko Ikerketa Proiektu Berri baten Barruko Partaidetza

XX. mende amaierako elikadura-krisia eta kontsumitzaileek janari seguruak nahiz kalitatekoak edukitzeko egin duten eskakizuna aintzat hartuta, elikadura-segurtasunaren zentzuzko planteamendua egin behar izan da maila desberdinetan. Kudeaketa-politiketan eta erakunde arautzaileetan oinarrituz, esfortzua arriskuen azterketa izenez ezagutzen dena zehaztean oinarritu da (arriskuen ebaluazioko, arriskuen kudeaketako eta arriskuen komunikazioko elkar loturiko eskemekin osatuta). Produktore-mailan, esfortzua kontroleko sistemetan pilatu da; horiek azken produktuaren kontrol hutsetik produktzio praktikak onak hartzera igaro dira (nekazaritza-praktika onetatik hasita), baita prebentziora bideraturiko eskemetara ere, esaterako, "Arriskuen Azterketa eta Gune Kritikoaren Kontrola".

| 06 |

Planteamendu berri horiek guztiak, izan ere, informazioan oinarrituriko jarduketak eskemak dira, eta, halakotzat, janariak errazago, azkarrago eta sarriago (denboran eta espazioan) eskuratzeko (erabakiak hartzeko eta datuak lortzeko orduan) aukera ematen duten elementuez baliatu ahal dira. Oraintsu onetsitako "Towards harmonisation of analytical methods for Monitoring and Quality Assurance of Food (MONIOA)" proiektua (GAIKER-4 enpresaren partaidetza) Bikaintasun Sarearen tresnaren bidez

diseinatu eta aurkeztu da (Network of Excellence), Europar Batasuneko VI. Programa Markoaren arloan eta Elikadura Segurtasuna eta Kalitatea deritzon arloaren barruan (www.eurofir.org). Horren helburua, izan ere, hurrengo bost urteotan laborategi birtuala ezartzea da, janariaren kalitatea zein segurtasuna kontrolatzeko metodoak eta teknologiak bateratzeko nahiz balioztatze, produkzio-kate osoan.


Europako hogeit hamar herriko ehun ikertzaile baino gehiagok lan bateratua egingo dute proiektu horretan.

MONIOA, beraz, diziplina anitzeko ekimena da; **bioteknologia** (Ezagupenaren Gizartearen zutabeetarikoa) eta Informazioaren Gizartearen berezko teknologiak bateratzen ditu. "MONIOA"

bikaintasun-sareak 34 kide ditu, hogeit hamar herri desberdinetakoak, eta 12.300.000 euroko aurrekontua dauka.

Nazioarteko lankidetzak

Elikadura-segurtasuneko nazioarteko ehun ikertzaile baino gehiagok (unibertsitateetako, enpresetako eta zentro teknologikoetako ikertzaileak, euren artean GAIKER-4) osatuko dute sare hori, detekzio eremu osagarrien eta diagnostikorako metodoen arloan baterako lana egiteko eta, horrela, euren ezagupenak bateratzeko, elikadura-segurtasunaren arloko ikerketaren azken emaitzei dagokienez. Sare horren helburua, izatez ere, metodo analitiko aurreratuak informazioaren teknologiek integratzea da, janariaren kalitatearen eta segurtasunaren kontrolaren monitorizazioa ahalbidetzeko, produkzio-kate osoan. Horretarako, sistema miniaturizatutakoak garatu nahiz aplikatu eta, gainera, herri desberdinetako datuak datu-base bakarrean sartuko dira, eta datu horiek informazio berriekin osatuko dira. Proiektuaren helburua laburbiltzen duen goiburukoa hau da: "laborategia janarira eta baserria mahaira eramatea".



Janari-katearen kate-mailak



Plastikozko piezen errotomoldekatze eta mikroinjekzio industrietarako material berriak

Horma anitzeko eta propietate berriko nanokargak eta nanohodiak dituzten mikrogalautsak egiten ditugu

eraldaketa prozesuen garapenean. Teknologia berri horiek, plastikozko materialen kasuan, 10 nm-tik beherako diametroko karbonozko nanohodien edo nanokarga mineralen erabilera ahalbidetzen dute. Horren ondoriozko materiala nanokonpositea da, eta nanoindargarrien barreiadura osoa (esfoliazioa) dauka plastikoaren matrizean, eta horrela, material konbentzionalek eskaintzen ez dituzten propietateak lortzen dira. Esate baterako, eskala nanometrikoko indargarrien erabilerak propietate jakinak indartzeko aukera ematen du, adibidez, zurruntasuna, egonkortasun termikoa nahiz dimentsionala, hesi-propietateak, propietate eroaleak eta suarekiko iraunkortasuna, materialaren gardentasunaren edo dentsitatearen kalterik gabe.

Materialen arloan egindako berrikuntza handi horrekin batera, beharrezkoa da produkzio prozesu tradizionalen egokitzapena (injekzioa, prentsaketa, errotomoldekatzea, etab.); halaber, garapen bidezko beste teknologia batzuetan ikertzeko eremuak ere ireki dira, esate baterako, mikroinjekzioan egindako ikerketak.

Lan-ildo berria
Horri dagokionez, GAIKER-IK4 enpresako

Plastikozko Materialen eta Konpositeen Arloak, azken urteotan, lan-ildo berria hasi du, bi prozesu horietarako berariaz formulaturiko mikrogalautsak garatzeko. Pieza milimetrikoen errotomoldekatzeak eta mikroinjekzioak eskakizun oso zehatzak dituzte erabilitako materialen aldetik, eta beraz, bientzat ere Zentroaren esperientzia oso ona da, nanokonpositeak zizaila altuko estrusio tekniken bidez garatzeari dagokionez. Horrela, estrusio-compounding sistemak eta mikrogalautsen teknikak (hondoraturiko ebaketa-sistemen bidezko galdaketa) konbinatuz, pauso bakarrarekin, horma anitzeko karbonozko nanohodiek eta nanopartikulekin indarturiko materialak lor daitezke, eta horiek oxidazio handiko prozesuekiko (adibidez, errotomoldekatzea) iraunkortasuna dute.


Nanoindargarriak eta gehigarri egonkortzaileak konbinatzearen ondorioz, gainazaleko akabera hobea duten piezak lortzen dira (hutsunedunak), egonkortasun termiko eta dimentsional handiagoko piezak, molturazioko bitarteko prozesuak erabili gabe. Mikroinjekzioko prozesuen kasuan, karbonozko nanohodiek indarturiko mikrogalautsak erabiliz, pieza milimetriko indartuak lortzen dira, karta estatikoa xahutzeko propietateak dituzten piezak, eta horiek ezin dira karga tradizionalekin

lortu, euren neurria mikroinjekzioko pieza askorena baino handiagoa baita.

Nanokonpositeetan oinarrituriko mikrogalautsen garapenak ahalbidetzen duen prozesuen sinergiak elementu bereizgarri garrantzitsua eskaintzen du GAIKER-IK4 enpresako Plastikozko Materialen eta Konpositeen Arloan, nanokonpositeen arloan lan egiten duten Europako beste ikerketa batzuek garaturiko lanari dagokionez. Aukerak mugagabeak dira, nanoindargarrietan eta matrize termoplastikoetan oinarrituz lor daitezkeen propietate guztiak kontuan hartuta. Halaber, mikrogalautsek prozesatua egiteko orduan eskaintzen duten jariakortasuna eta barreiadura aintzat hartuta, aplikazio eremuak guztiz irekita daude berrikuntza sektore nagusietara, esaterako, eraikuntzara, automobilgintzara, ontziratzeko nahiz paketatze industriara edo biomaterialetara.

Materialen arloan egindako berrikuntza handi horrekin batera, beharrezkoa da produkzio prozesu tradizionalen egokitzapena.

Teknologia horren aplikazio eremuak guztiz irekita daude berrikuntza sektore nagusietara, esaterako, eraikuntzara edo automobilgintzara.



Mikrograntzak



jakingarriak

Kudeaketa bikaintasunaren Europako Sariko Finalistak

GAIKER-IK4 Kudeaketa Bikaintasunaren Europako 2006ko Sariko 27 finalisten artean egongo da, eta horren epaitza azaroaren 7an izango da Budapesten (Hungaria). Euskadiko bi ikastetxek eta enpresa batzuek (adibidez, General Motors, Fiat eta BMW) osatzen dute aurtengo zerrenda, eta bertan, 10 ETEen artean, I+G deritzonaren diharduen zentro bakarra gara, modalitate horretan lehiatzen direnen artean.

Enpresa Bikaintasuneko Europako Eredua, EFQM, 1997tik aplikatzen da GAIKER-IK4 elkartearen. Kudeaketa eredu aurreratu hori bezeroen eta enplegatuen poztasuna lortzean oinarritzen da, baita gizartean eragin ona lortzean ere; horretarako, politika nahiz estrategia sustatzen duen buruzagitzak, pertsonen kudeaketa egokia, baliabideen erabilera eraginkorra eta prozesuen zehaztapen ona erabiltzen dira, enpresaren emaitzarik onenak lortu ahal izateko.

EFQM eredu enpresa askok erabiltzen dute; Europa osoan hedapenik handiena duen eredu da. Euskadin, izan ere, sistema horren ezarkuntza tradizio handia dago, Euskal fundazioak sustatuta (Kalitaterako Euskal Iraskundea). 2004an, fundazio horrek GAIKER-IK4 elkartearen Kudeaketaren Kalitatea onartu zuen (eredu horretan oinarrituriko kudeaketa), eta Urrezko "O" eman zigun; 2002an Zilarrezko "O" eman zigun.



Budapesteko Arteen Jauregia; sari-banaketa bertan egingo da

ONDOAN eta GAIKER-IK4, enpresaren eta I+G deritzonaren arteko lankidetzak iraunkor eredugarria

ONDOAN eta GAIKER-IK4 deritzonaren arteko lankidetzak 80ko hamarkadan hasi zen. Mondragon Korporazio Kooperatiboko (MCC) Bizkaiko enpresa hori GAIKER elkartearen kidea izan zen eta oraingo Fundazioaren kidea da, hori 1997an sortu zenetik; urte horretatik, eginkizun garrantzitsua izan du Fundazioaren barruan. Egoera bietan, bai Zuzendaritza Batzordean bai Patronatuan, paper garrantzitsua jokatu du.

ONDOAN 1982an sortu zen, Uren Tratamenduaren eta Arazketaren Injinerutzan jarduteko; 24 urteotan etengabe hazi eta orain 100 enplegatu baino gehiago ditu; gaur egun, 4 sailetan antolatuta dago: Auditoria eta Kontrola, Aholkularitza, Ingurumena eta Prebentzioa, Injinerutza eta Instalazio Orokorrak eta Abioa eta Mantenamendua.

1985etik, enpresak I+G jarduerak hasi zituen urtetik, GAIKER-IK4 elkartearekiko lotura etengabea izan da. Era berean, urteetan zehar, lankidetzak aktiboa izan dute I+G deritzonaren proiektu batzuen garapenean eta "audit" edo "azterketa teknologiko" batzuetan. Lan horien artean, esaterako, aipagarria da bere garaian aurrendaria izan zen proiektu bat; bertan, 1996 eta 1998 bitartean, Bilboko Hiltegiarekin, Salica kontserba-enpresarekin eta MG Mendoza nekazaritzako elikagaien enpresarekin egin genuen lan, "nekazaritzako elikagaien industrian proteinen eta koipeen aprobetxamendua duten karga organiko handiko isurketak minimizatzeko". Proiektuko kide teknologikotzat, GAIKER-IK4 elkartearen lana, oinarritu ere, parte hartu zuten nekazaritzako elikagaien enpresek sorturiko hondakinak minimizatzeko prozesurik egokienak identifikatzean oinarritu zen; ONDOAN enpresaren

lana, berriz, suspertzeko behin betiko sistemaren diseinua egitean oinarritu zen.

1997-1998 urteetan Bilboko Aireportuaren segurtasun gelaren lanetan ONDOAN eta GAIKER-IK4 Teknologia Zentroak lur kutsatuen lekualdaketa eta giltzape prozesuan sortu ziren lixibiatuen tratamenduan ere elkarrekin egin zuten lan.

Halaber, 2005ean, bi enpresa horiek lankidetzan ibili ziren, tratamendu biologikodun sistema misto baten (ikatz/lignitoa) errendimendua aztertzeko (azken 10 urteotan esfortzu handiz finkaturiko teknologia), eta horrela, ONDOAN enpresaren bezeroa zen automobilgintza sektoreko enpresa ezagun baten hondakin uren tratamendua egiteko.

Gaur egun, GAIKER-IK4 elkartearen ONDOAN enpresarekin lankidetzan dabil uren kalitatearen kontrolean; kontrol hori, berriz, Eusko Jaurilaritzarako egiten da, "EAEko Ibairen Egoera Ekologikoaren Jarraipenerako Sarea" deritzonaren barruan. Lankidetzak hori 2002an hasi zen.

Ere berean, gaur egun, ONDOAN eta GAIKER-IK 4 enpresak INTEK proiektu batean ari dira lanean, Eusko Jaurilaritzarekin lankidetzan; horren helburua, etxerako eta industriarako garbiketa sistemak diseinatzea da, eta sistema horietan, ura berriro erabiltzea eta, beraz, horren kontsumo iraunkorra egitea sustatzen da. 2006tik 2008ra bitartean garatuko den proiektu horrek Fagor Electrodomésticos, Fagor Industrial eta Ikerlan-IK4 enpresen partaidetzak dauka, eta Uraren 2000/60/EE Zuzentarau Markoaren ildotik doa; bertan, baliabide horren berrerabilera sustatzen da.

Golf solidarioko txapelketaren baterako babesleak

Irabazi asmorik gabeko Sport Mundi elkartearen eliteko profesional eta kirolari batzuek osatu dute, kirola gizartearen barruko elkartasuna eragiteko tresnatzat sustatzeko; elkarte horrek, joan den irailaren 11n, Golf Sport Mundi deritzoneko I Pro-Am antolatu zuen; GAIKER-1K4 elkarteak bertan egon nahi izan zuen eta, horretarako, gure zuzendari nagusi Iñaki Letonak parte hartu zuen txapelketan.

Artxandako Golf zelaian izandako ikuskizun honek, bai kirol munduko zein golf munduan bereziki ezagunak diren pertsonak hartu zuten parte. Horien artean, Jose María Olazábal (Elkarteko presidentea), Andoni Zubizarreta edo Pep Guardiola. Horiez gain, Herri Administrazioari foro diputatua den Iñaki Hidalgo, eta enpresaren alorreko hainbat ordezkari ere bertan izan ziren.

la sei orduko iraupena eta 21 taldeko 84 jokalariren partaidetza izan zuen txapelketan bildutako fondoak, kirolaren sustapenari loturiko proiektu solidarioetara bideratuko dira. Lehenagoko egintzetan bildutako fondoekin, Sport Mundi elkarteak GKEek (esate baterako, Medicus Mundi, DOA edo Taupadak) sustaturiko proiektuak finantzatu ditu.



José María Olazábal, txapelketaren osteko prentsaurrekoan

jarduera jasangarriagoen alde



Ur eta elektrizitate kontsumoen murriztapena

Oldarturen aurreko zenbakian, Zentroan sortzen diren hondakinen murriztapenari eta kudeaketari buruzko zifra nagusietariko batzuk eman ziren, eta energiaren eta uraren kontsumoan egindako aurrerakuntzak ere aipatu ziren. Zenbaki honetan, harturiko soluzioetariko batzuetan sakondu nahi dugu, uraren eta elektrizitatearen kontsumoak %30ean eta %60an murrizteko, hurrenez hurren, aurreko urteei dagokienez.

Uraren kasuan, neurri horiek eraikineko instalazioak ikuskatzean (ur-ihesak murrizteko), deskarga erdiko sistemen

instalazioan (komunetan) eta ebaketa-giltzak jartzean (hodieria-sareko leku estrategikoetan) oinarritu dira; giltza horiek murriztu egin dute ur-hustuketaren bolumena, mantenamenduko eragiketarako edo konponketak egitean.

Bestalde, kontsumo elektrikoa murriztu egin da, eraikineko segurtasun-ganberetan infragorri-sistema bat jarrita (gazez argiak itzaltzeko aukera ematen duen sistema), kanpoko argien pizte nahiz itzaltze automatikoa erregulatzen duen zelula fotoelektrikoa instalatuz eta galdararen abioa sekuentziara programatuz (zonaka).

Birziklapen kimikorako teknologien aldeko apustua

Birziklapen teknologia berrien garapena, besteak beste, Europako zuzentzarau berriek plastikozko hondakin-erakunde gero eta birziklapen eta balioztatze maila handiagoa eskatzearen eraginezkoa da.

Teknologia aurreratuetariko bat birziklapen kimikoa da eta horrek aukera ematen du birziklapen mekanikoaren teknologia tradizionalak baino hondakin-zatiki konplexuagoei irteera emateko (estrusioa, injekzioa, etab.). Desberdintasun nagusia hau da: birziklapen kimikoaren helburua ez da plastikozko materialak suspertzea, berori sortzen duten konposatu kimikoak suspertzea baizik.

GAIKER-1K4ren Birziklapen eta Balioztatze Arloa teknologia berri horrekin ari da lanean; hori indarturik gelditu da birziklapen kimikorako azken

belaunaldiko ekipo bat eskuratu denean, PARR erreaktorea, eta horrek, lehenik genuen ekipamendurekin batera, arlo horren barruko ikerketa berriak garatzeko aukera emango digu.



Plastikoaren birziklapen teknikorako erreakzio sistema

Presentzia Biospain-Biotech 2006 azokan



GAIKER-IK4ren standa

Joan den irailean geure eskaintza bioteknologikoa eta Zentroan garatzen ditugun I+G proiektuen kudeaketa eredu aurkeztu genituen Biospain-Biotech 2006 azokan. Madrilen 18tik 20ra bitartean izandako ikuskizun horren helburua (geure standarekin egon ginen bertan), izan ere, bioteknologiaren arloko enpresei eta horien hornitzaileei merkataritza helburu desberdinak lortzeko aukera eskaintzea zen; horren barruan, lankidetzak akordioak, kontaktuak eta abar sartzen ziren.

Ikuskizunaren antolatzaileek diotenez (Bioenpresen Enpresa Elkarte (ASEBIO), SEBIOT, GENOMA ESPAÑA, CIDEM eta PROMOMADRID), azokaren helburua bilguneko plataforma izatea da, Espainiako estatuan bioteknologiaren garapenean parte hartzen duten sektore guztietarako, bioteknologiak hazkunde ekonomiko eta sozialeko bektoretzat dituen berrikuntza aukerak aprobetxatuz.

Edizio honetako programan honako hau sartu zen: zientzia-saioak, mahai-inguruak eta workshopak, eta nazioarteko hizlari ospetsuek (besteak beste, Salk Institute for Biological Studies deritzon Juan Carlos Izpisua eta Genome Canada deritzon Martin Godbout) aurkezturiko txostenak.

Plastiko enpresei zuzendutako zerbitzu teknologikoen atari berria

GAIKER-IK4 Plastikoaren Zentro Birtuala (PZB) abiarazi duen Europako partzuergoko kide da, honen helburua Europako plastikoaren sektoreari zerbitzu espezializatuak eta teknikoak eskaintzea da. PZBK, diseinu, molde, ekoizpen eta plastikozko piezen mihiztadurarekin lotutako arloak ere hartzen dituenak, bezeroari eman beharreko arretaz gain, sektore industrial honetako enpresa europarren garapena eta berrikuntza potentziala hobetuko ditu.

Europako plastiko ekoizleen hornitzaileen kateak 40.000 enpresa inguru hartzen ditu, ETEak batez ere, ia milioi lagun enplegatu dituztenak. 100 bilioi euro baino gehiagoko fakturazio globala duen industria hau sektore ugarritan aritzen da, eta hauek geroz eta lehiakorragoak dira kostu,

denbora eta kalitateari dagokienez eskakizunak gero eta handiagoak direlako.

e-SeSME proiektuak (ETEetarako Zerbitzu Elektronikoak Plastikoen Ekoizpen Katean), honen barruan ekimen birtual hau dagoela, guztira, 1,8 milioi euroko aurrekontua du. Europako Batasunak eTEN programaren bidez batera finantzatuta, proiektu honen atzean Europako 5 herrialdetik (Espainia, Frantzia, Portugal, Polonia eta Britainia Handia) datozen 11 bazkideren partzuergoa dago. Partaideen artean Zentro Teknologikoak, GAIKER-IK4, eta unibertsitateak daude, eta gainera, aholkatzeko eginkizunak dituzten bestelako erakunde sektorial eta teknologikoak ere badaude.

Merkataritza Misio Britainiarraren Bisitaldia

Enpresa eta zentro teknologiko britainiarren ordezkariak GAIKER-IK4ra etorri ziren ekainean, geure burua birziklapenaren arloko nazioarteko erreferentziako zentrotzat identifikatu ondoren. Segizio horretako kideek, Resource Efficiency deritzoneko Eragiketa Zuzendaria den Arnold Blackburu zutelarik, arlo horretan garatzen dugun lana ezagutu nahi izan zuten, baita Aparatu Elektriko-elektronikoen (RAEE) hondakinek nahiz Kudeaketa Sistema Integratuek Espainiako estatuan duten egoera eta Europako Zuzentzauek geure legerian duten transposizioa ere.

Bisitaldi horretan geure bezeroa den Indumetal Recycling enpresa ere egon zen, RAEE deritzen birziklapenaren duen esperientzia azaltzeko; bisitaldia baliozkoa izan zen nazioarteko lankidetzak aukerak ezartzeko, I+G zentroekin eta VII. Programa

Markoaren hurrengo deialdietan txertaturiko enpresa bisitarien (batez ere, ETEak). Merkataritza eta Inbertsioen Bulego Britainiarreko (nazioarteko transferentzia teknologikoa sustatzeko gobernu-entzina) kontsula den Derek Doyle ere segizioan sartu zen, bisitaldiaren azken etapan.



Bisitaldian birziklaiaren arloa nagusia izan zen



Guillermo Dorronsoro

IK4 Research Alliance Enpresako Zuzendari Nagusia

Ikasturte berriaren hasiera IK4 Research Alliance-arentzat

Ikasturte hasiera une egokia da egindako bidea ikuskatzeko eta hurrengo hilabeteetarako helburuak aztertzeko; izan ere, hilabete horiek amaiera emango diote Alianza IK4 enpresaren lehenengo Jarduketa Planari (2005-2006), eta horietan gaurkotu egingo dugu datozen urteotarako Jarduketa Plana.


Proiektu honen zehaztapenean funtsezkoa da IK4 zentroetako profesionalen inplikazioa, eurok eraikitzen baitute egunetik egunera Alianza. Prozesu horretan, interesgarria da Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Sarean ditugun laguntzailerik hurbilenen iritzia jakitea eta integratzea: batez ere Tecnaliarekin, baina baita Unibertsitateekin, CICekin eta enpresako I+G unitateekin ere.

Bestalde, uztailaren 26an Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Enpresa Lehiakortasuneko eta Berrikuntza Sozialeko 2006-2009 Plana onetsi zuen, eta horren helburuetariko batzuk hobeto

zehaztuko dira Zientzia, Teknologia eta Gizarte Planean. Aldi berri honetarako hausnarketa-elementu nagusienetarikoa da, eta bertan, emaitzetarako orientazioak berebiziko garrantzia hartzen du.

Geure I+G+b merkaturantz orientatzea ez da gauza berria IK4 zentroetarako. Hala eta guztiz ere, gure eraginkortasuna hobetu beharra dugu, berrikuntzan erabili beharreko baliabide gero eta ugariagoek errendimendu ahalik eta handiena lortzeko. Lan horretan, zalantzarik gabe, bezeroen eta geure gobernu-organoetan parte hartzen duten enpresen laguntza izango dugu.

Erronka horietarako, IK4 zentroetan errezeta bakarra dago: zentroen jardueraren kudeaketa bikaina egitea. GAIKER Kudeaketaren Bikaintasunaren Europako Sarian finalista izatea harro eta pozik egoteko modukoa da geuretzat: Zorionak!



entzuten zaitugu

Harpidetza egiteko edo ale honetan argitaratutako gai baten inguruko informazio gehiago eskatzeko, kupoi hau bidali, **mark@gaiker.es**-ra idatzi edo **94 600 23 23**-ra deitu.


- Harpidetza egin nahi dut
- Honen inguruko informazio gehiago nahi dut

Izen Abizenak

Enpresa

Helbidea

E-posta



Betiko gauzak ikusteko beste modu bat.

Batzuetan, berritzeko, arazo bati konponbidea aurkitzeko, aski dugu lehendik ezagutzen ditugun gauzei beste modu batera begiratzearekin. Beste modu batera begiratu eta modu berri batean erabiltzearekin, zerbait bestelako bihurtzeko.

GAIKER-ik4 zentroan, gure lana, gauzak beste modu batera ikustean datza beti. Plastikoak eta Konpositeak, Iraunkortasuna eta Ingurumena, Birziklatzea eta Balioespena eta Bioteknologia bezelako arloetan garatzen dugun berrikuntzarekin, gure bezeroei partzela berriak konkistatzen, abantaila berriak lortzen laguntzen diegu. Eta eskaintzen eta garatzen ditugun I+G+b bezalako jarduekin, berriz, beren produktu eta prozesuen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzen laguntzen diegu.

Hitz batean esateko, arazoak konpontzen laguntzen dugu iridumenaren eta ezagutzaren bitartez. Gauzak begiratu berri batekin ikusiz. GAIKER-ik4 zentroan **ez dakiguna da handi egiten gaituena.**

Zer? Nola? Zergatik?


Euskadi
2004



GAIKER
ik4 research alliance